

## **LANERA BIZIKLETAN KANPAINAREN AURKEZPENA ARETXABALETAN**

Astelehenean (urriak 27) 19:00etan Kultur Etxean egingo da LANERA BIZIKLETAN ekimenaren aurkezpena, herritar guztiei zuzendutako saioan.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Oñati, Aretxabaleta, Arrasate eta Eskoriatzako Udalek antolatu duten ekimen honekin, herritarrek lanera oinez edo bizikletan joateko ohitura sustatu nahi dute, osasun eta ingurumenarentzat onura garrantzitsuak baititu. Bertan Foru Aldundiko, Udaleko eta Kanpainaren komunikazio enpresako ordezkariak ekimenaren azalpena egingo dute, baliabide guztiak aurkeztuz; era berean, herritarren zalantzak argitzeko eta ekarpenak jasotzeko aukera ere egongo da.

Aretxabaletakoa izango da hirugarren aurkezpen bilera eta laugarrena, Arrasaten izango da, urriaren 30an. Lehengo astean Oñatin eta Eskoriatzan egin dira bilera hauek. Informazio gehiagorako deitu 900102716 telefono zenbakira edo sartu [www.lanerabizikletan.net](http://www.lanerabizikletan.net) blogean.